BESTELAKO XEDAPENAK

OGASUN ETA FINANTZA SAILA

4911

EBAZPENA, 2014ko azaroaren 7koa, Administrazioko eta Zerbitzu Orokorretako sailburuordearena, Konekta Zaitez@Banda Zabala izeneko egitasmoaren barruan, banda zabaleko Interneten sartzeko diru-laguntzak emateko dena.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2007ko uztailaren 11ko Aginduak (EHAA, 147. zk.), hau da, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuaren 2010eko otsailaren 18ko Aginduak aldatutakoak (EHAA, 57 zk.) Konekta Zaitez@Banda Zabala Proiektuaren barruan, Interneterako banda zabaleko sarrera-zerbitzuak emateko laguntza-neurriak ezartzen ditu.

Aipatutako aginduan, diru-laguntzetako programa bat eratzen da. Diru-laguntza horien xedekoak dira, hain zuzen ere, banda zabaleko Internetekin konektatzeko, alde batetik, erabiltzaileak behar duen terminal-ekipoa erostea, eta, bestetik, frekuentzia libreetako (wifi edo antzekoak) bandako puntu-puntu anitzeko hari gabeko teknologietan oinarritutako instalazio kolektiboak eskuratzea. Halaber, diru-laguntza horiek emateko prozedura eta irizpideak arautzen dira eta laguntzen zenbatekoa eta bera aldatzeko prozedura ezartzen dira.

Administrazioko eta Zerbitzu Orokorretako sailburuordearen 2014ko irailaren 8ko Ebazpenaren bitartez, 2014ko ekitaldirako laguntzei dagokienez guztira aurreikusi den zenbatekoa onartu da. Ebazpen horretan guztira ezarri den zenbatekoa ehun eta hamar mila (110.000) eurokoa da. Ezarritako konponbide teknologikoari dagokionez, erositako ekipo terminal bakoitzeko zenbatekoa berrehun eta laurogeita bat (281) eurokoa izango da.

Halaber, esandako agindu horren 10. artikuluak Itelazpi izendatzen du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren erakunde laguntzaile, Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren antolarauei buruzko Legearen testu bategina onesteko den azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 52. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Ogasun eta Herri Administrazioko sailburuaren 2007ko uztailaren 11ko Aginduaren 11. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrita, eta erakunde laguntzaileak egindako proposamena ikusi ondoren, honako hau,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Banda zabaleko Internetera sartzeko diru-laguntzen esleipena onuradunei jakinaraztea, Konekta Zaitez@Banda Zabala izeneko egitasmoaren esparruan, honi erantsita doakion eranskinean jasota dauden kopuruetan.

Bigarrena.– Aipatutako 2007ko uztailaren 11ko Aginduaren 13.1. artikuluan ezarritakoari jarraituz, Itelazpi baltzu publikoak izango du onuradunak jakinarazteko eta operadoreari horien konturako diru-laguntzak ordaintzeko ardura.

Hirugarrena.– Administrazio-bidea agortzen ez duen ebazpen honen aurka, gorako errekurtsoa aurkeztu ahal zaio Ogasun eta Finantzetako sailburuari hilabeteko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

Laugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea eta bai ere erakunde onuradun bakoitzari honako honen berri emateko ere.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko azaroaren 7a.

Administrazioko eta Zerbitzu Orokorretako sailburuordea,
CARMELO ARCELUS MÚGICA.

ERANSKINA

KONEKTA ZAITEZ@BANDA ZABALA

ONURADUNEN ZERRENDA – ESLEITUTAKO DIRU-LAGUNTZAK

Eskatzailea	Diru-laguntza (eurotan)
1.– Abaroa Ruiz Xabier	281
2.– Achaerandio Mangado Maria Elena	281
3.– Alcalde Diez Daniel	281
4.– Ane Borde Atxebarria	281
5.– Areta Uzquiano Margarita	281
6.– Artaza Kamiloaga Juan	281
7.– Barrena Olabarrieta Maria Teresa	281
8.– Benavides Ardilla Digna Isabel	281
9.– Berasategi Torres Javier	281
10.– Beraza Etxeberria Lucia	281
11.– Contenedores Txori-Erri, S.L.	281
12.– Diaz De Alda Gomez De Segura Fernando	281
13.– Diseños Daco, S.L.	281
14.– Errazquin Artola Xabier	281
15.– Fernandez Uriarte Iban	281
16.– Garcia Rodriguez Maria Isabel	281
17.– Gaztelugain Elkartea	281
18.– Gorospe Sagarna Jose Maria	281
19.– Grupo Ipartel Teknologia, S. L.	281
20.– Gurrutxaga Arruti Ane	281
21.– Hernando Garcia Jose Miguel	281
22.– Iñigo Domaica Portilla	281
23.– Jon Barandiaran Vicuña	281
24.– Josebe Artaza Artabe	281
25.– Josebe Artaza Artabe	281
26.– Juanes Azcurreta Fernando	281
27.– Kepa Elgoibar Guerequitz	281
28.– Legarretaechevarria Bilbao Jose Javier	281
29.– Miner Urdangarin Arantzazu	281
30.– Monteiro Alves Maria Ducarmo	281
31.– Mugerza Perello Javier	281
32.– Mujica Arruti Maria Arantzazu	281
33.– Muro Fernandez Moises	281
34.– Odriozola Unanue David	281
35.– Olano Mantegui Iker	281
36.– Pagobieta S.C	281
37.– Ramos Perez Evelina	281
38.– Requibatiz Quintana Francisco	281
39.– Rivas Acevedo Juan Maria	281
40.– Ugarbide S.L.	281
41.– Vicente Abaurrea Vanesa	281
42.– Vicente Hernandez Judith	281
43.– Zabaleta Valle Eneko	281